

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

4071

EBAZPENA, 2020ko irailaren 25ekoa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, UPV/EHUko lanpostu bat izendapen askearen bidez betetzeko deialdi publikoa ebazten duena.

Farmazia Fakultaterako administrazio burua lanpostua betetzeko deialdian, ezarritako epean ez denez eskaerarik aurkeztu eta deialdia ebazpenaren laugarren oinarria betetzeko, eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearekin bat etorritik (1989ko uztailaren 28ko EHAA), Gerentziak, Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak 2017ko urtarrilaren 25ean hartutako ebazpena, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena (2017ko otsailaren 3ko EHAA) erabiliz, honako hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Behean azaltzen den lanpostuaren prozedura amaitutzat jotzea, eta deialdia hutsik gelditu dela adieraztea:

- Izena: Administrazio burua.
- Erref.: F 315.
- Eskala: Gestio Teknikaria.
- Taldea: A.
- Zenbatgarrena: 11.
- Maila: 26.
- Hizkuntza eskakizuna: 3; derrigorrezko data: 2018ko otsailaren 28a.
- Langunea: Farmazia Fakultatea.
- BE.
- Campusa: Álava/Araba.

Bigarrena.– Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du eta bere aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Gerentzia honen aurrean, hilabeteko epean. Nahiago bada, administrazio-auzietako errekurtsoa jarri ahal izango da zuzenean Administrazio Auzietako Epaitegi egokian; horretarako hilabete bi egongo dira, Ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamu-nean hasita. Hori guztia, Unibertsitateko Estatutuetoako 160. artikuluan, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 123.artikuluan eta uztailaren 13ko Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legeko 8. eta 14.artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

Leioa, 2020ko irailaren 25a.

Gerentea,
MIREN LOREA BILBAO ARTETXE.